EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

Agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan usapal europarra (Streptopelia turtur) kudeatzeko plana onartzen duena. Orden, de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente por la que se aprueba con carácter previo el proyecto de orden por la que se aprueba el Plan de gestión de la tórtola europea (Streptopelia turtur) en la Comunidad Autónoma del País Vasco

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko irailaren 27ko Aginduaren bidez erabaki zen hasiera ematea Euskal Autonomia Erkidegoan usapal europarra (Streptopelia turtur) kudeatzeko plana onartzen duen prozedurari.

Por Orden de 27 de septiembre de 2023, de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, se acordó iniciar procedimiento de aprobación del plan de gestión de la tórtola europea (Streptopelia turtur) en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.1 artikuluak ezartzen duenez, xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

El artículo 15.1 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, establece que, una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la orden de inicio.

Azaldutako guztiagatik, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeari eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legeari jarraituz, honako hau Por todo lo anteriormente expuesto, en virtud de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, y de la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de Conservación del Patrimonio Natural de Euskadi,

#### EBAZTEN DUT

## RESUELVO

*Lehena.*- Aldez aurretik onartzea agindu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan usapal europarra (Streptopelia turtur) kudeatzeko plana onartzen duena.

**Primero.-** Aprobar con carácter previo el proyecto de orden por la que se aprueba el Plan de gestión de la tórtola europea (Streptopelia turtur) en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Bigarrena.- Aipatutako agindu-proiektua egiteko prozedurarekin jarraitzeko agintzea, honako izapideekin bat etorriz: Agindua, 2023ko iraialaren 27koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez erabakitzen baita hasiera ematea honako hau onartzeko prozedurari: Agindua, Euskal Autonomia

Segundo.- Ordenar la continuación del procedimiento de elaboración del referido proyecto de orden, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden de 27 de septiembre de 2023, de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, por la que se acuerda el inicio del procedimiento de aprobación del Plan de gestión de la



Erkidegoan usapal europarra (Streptopelia turtur) kudeatzeko plana onartzen duena.

tórtola europea (Streptopelia turtur) en la Comunidad Autónoma del País Vasco; en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General; y en la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de Conservación del Patrimonio Natural de Euskadi.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente MARIA ARÁNZAZU TAPIA OTAEGI (Sinadura elektronikoa / Firma electrónica)



## **PROIEKTUA:**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoan usapal europarra (*Streptopelia turtur*) kudeatzeko plana onartzen duena.



Hasierako dokumentua - 2023ko urria

#### **ZIOEN AZALPENA**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentarauak, basa-hegaztien kontserbazioari buruzkoak (aurrerantzean, Hegaztien Zuzentaraua), ezartzen du estatu kideek beharrezko neurriak hartu beharko dituztela Europako lurraldean basa-egoeran bizi diren hegaztien populazioak mantentzeko edo egokitzeko, bai eta espezie horientzako habitat-dibertsitate eta -azalera nahikoa zaintzeko, mantentzeko edo lehengoratzeko beharrezko neurriak hartu ere.

Hegaztien Zuzentarauak usapal europarra (*Streptopelia turtur*), ohiko presentzia duen espezie migratzailetzat joaz aparte, barne hartzen du II. eranskinean, zein legedi nazionalaren esparruan ehizatu ahal izango diren espezieei buruzkoa den, haien populazio-maila, banaketa geografikoa eta Europar Batasuneko lurralde osoan duten ugaltze-indizea direla eta. Hala ere, estatu kideek espezie horien ehizak beren banaketa-eremuan egindako kontserbazio-ahaleginak ez dituela arriskuan jartzen zaindu behar dute.

Europako Batzordearen arabera, eta estimazio berrienen arabera, Espainiak EBko usapal europarraren populazio ugaltzailearen erdia baino gehiago hartzen du barne, eta eskura dauden datu zientifiko berrienak ikusita, kontserbazio-egoera txarrean dago, IUCNko espezie mehatxatuen zerrenda gorrian duen estatusaren arabera. Hori dela eta, 2015etik espeziea «kaltebera» gisa ageri da Europako hegaztien zerrenda gorrian, eta kalkulatzen da espeziearen populazioak % 30ean murriztu direla hiru belaunalditan. Zehazki, Hegaztien Zuzentarauaren 12. artikuluaren araberako azken seiurteko txostenak (2013-2018 aldiari dagokiona) dio Espainian, 2007 urteaz geroztik, penintsulako populazio ugaltzailea %23 eta %40 artean murriztu dela, eta banaketa-eremua % 10-20an txikiagotu dela.

Euskal Autonomia Erkidegoan, usapal europarra udako hegazti ugaltzaile urria da (Araban bakarrik), migrazioan igarotzen dena, baina udazken-neguko presentziarik gabe (transaharar migratzailea). Historikoki, Bizkaiko eta Gipuzkoako landazabal atlantikoan eta Arabako eremu zabaletan (Arabako Lautadan, besteak beste) ohikoa den espezie gisa aipatu bada ere, datu horiek migrazio-igarotzeko aleen presentziarekin lotuta egon zitezkeela uste da, eta ez populazio ugaltzailearekin. Nolanahi ere, Bizkaiari dagokionez, habiagintzako aipamen historiko batzuk baieztatuta daude, azkena 1998koa, eta horiek berresten dute gutxienez ugalketa-gune bat egon zela Bizkaiko mendebaldeko kostaldean garai hartan. EAEn 2006, 2015 eta 2020 urteetan espezieari buruz egindako hiru zentsuetan banaketa-eremua eta populazioa ugaltzailea murriztu egin direla egiaztatu da, ondorioz, gaur egun populazio ugaltzaile horren kontserbazio-egoera txarra dela esan daiteke.

2019an, Europako Batzordeak Hegazti Zuzentarauaren aplikazioari buruzko epatzegutuna bidali zion Espainiako Erresumari, zehazki usapal europarra kontserbatzeko neurriei dagokienez. Gutun horretan, Europako Batzordeak Hegazti Zuzentarauaren 3., 4. eta 7. artikuluetako zenbait paragrafori jarraiki ezarritako betebeharrak ez direla bete

ondorioztatzen du, besteak beste, usapal europarraren habitat-dibertsitate eta -azalera nahikoa babestu, mantendu eta lehengoratzeko beharrezko neurriak ez hartzeagatik, bai eta honen ehizak espeziearen arrazoizko erabileraren printzipioa betetzen dela ez ziurtatzeagatik ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 69. artikuluak Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda sortu eta arautzen du. Zerrenda horretan basa-espezie mehatxatuak "galtzeko arriskuan" eta "kaltebera" kategorietan sailkatuta daude.

Usapal europarrak (*Streptopelia turtur*) EAEn duen populazio-egoera ikusita, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko maiatzaren 24ko Aginduaren bidez, espezie hau "galtzeko arriskuan" kategorian sartu da. Kategoria hori 9/2021 Legearen 69.3 artikuluan definitzen da, eta gaur egungo egoera sorrarazi duten baldintzak mantentzekotan bizirauteko aukera gutxi dituzten espezieei erreserbatzen zaie.

Usapalarengan hainbat faktorek eragiten dute, eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, beren kontserbazio-egoera baldintzatzen ari dira maila globalean eta eskualdekoan. Horietako askok Euskal Autonomia Erkidegoan gertatzen dira; esate baterako, nekazaritza-sistemak aldatzea, produktu fitosanitarioak erabiltzea, heskaiak edo zuhaixkak kentzea, batez ere Araban, edota landazabaleko lurrak gehiegi urbanizatzea, Bizkaia eta Gipuzkoaren kasuan. Euskadin espeziearen kontserbazio-egoera on baten aldeko kudeaketa-tresnen aplikazioa baldintzatzen duten beste arrazoi batzuk hauek dira: a) Usapal europarrak filopatria handia izatea (hazten den leku berberetara itzultzen da urtero), b) bere banaketa-eremua, neurri handi batean, altitudeak markatzen dituela, altuera baxuko eta ertaineko lursailetan banatzen baita, eta c) Arabako populazio ugaltzailea penintsulako populazio ugaltzailearen banaketa-mugan dagoela, Espainiako Hegazti Ugaltzaileen 2022ko III. Atlasaren informazioaren arabera. Bizkaiko populazio ugaltzaileari dagokionez, aipatutakoez gain, gainbehera handia eragin duten arrazoiak honako hauek izan daitezke: egon, elikatu eta ugaldu egiten diren landazabaleko lursailen gehiegizko urbanizazioa, bai eta debeku-erdiko aldian ehizatzea ere, espeziearen habiagintzarekin bat baitator neurri batean.

Kudeaketa-plan hau onartzean, 9/2021 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoa betetzen da. Artikulu horren arabera, espezie bat katalogatu ondoren, kudeaketa-plan bat onartu behar da, natura-ondarearen arloan eskumenak dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren saileko titularraren agindu bidez. Kudeaketa-plan hori foru-organo eskudunekin koordinatuta egin da.

#### **XEDAPENAK**

- 1. **artikulua.-** Kudeaketa-plana onartzea.
- 1.- Euskal Autonomia Erkidegoan usapal europarra (*Streptopelia turtur*) kudeatzeko plana onartu da, eta agindu honen eranskinean argitaratzen da.
- 2. artikulua.- Kudeaketa-planaren xedea eta helburuak.
- 1.- <u>Xedea</u>: usapal europarra (*Streptopelia turtur*) kaltetzen duten mehatxuak ezabatzea, haren biziraupena ziurtatzea, bere populazioen berreskurapen eta kontserbazioa sustatzea, bai eta migrazio-igarobidean ugaltzeko eta elikatzeko habitatak babestea, mantentzea eta berreskuratzea ere, horrekin guztiarekin kontserbazio-egoera ona lortzeko.
- 2.- <u>Helburuak</u>: kudeaketa-plan honen xedea betetzeko, honako helburu hauek ezarri dira:
  - a. Usapal europarraren babes eraginkorra ziurtatzea lurraldean, haren populazioa kontserbazio-egoera onean egon dadin beharrezko neurriak hartuta.
  - b. Ugalketa-eremuetan kalitate oneko habitatak hobetzea (habiak egiteko eta elikatzeko habitatak).
  - c. Migrazio-garaian dagoen populazioarentzat kalitate oneko habitatak hobetzea (elikadura-habitata).
  - d. Espeziearen bioekologiaren ezagutza hobetzea, bai eta honen lotura lurren erabilerarekin ere.
  - e. Espeziaren aleen hilkortasun ez-naturala prebenitzea, baita beste mehatxu-faktore batzuk ere.
  - f. Espeziearen aleen legez kanpoko hilkortasun ez-naturala eraginkortasunez jarraitzea.
  - g. Usapal europarraren populazioen jarraipena eta azterketa egiteko beharrezko mekanismoak ezartzea.
  - h. Usapal europarraren kudeaketan inplikatuta dauden sektore guztien parte-hartzea bultzatzea.
  - i. Espeziea kontserbatzearen aldeko jarrera soziala sustatzea, hezkuntza- eta sentsibilizazio-jardueren bidez.
  - j. Usapal europarraren kontserbazioan eta kudeaketan erakundeen arteko koordinazioa ziurtatzea.
  - k. Kantauriko kostaldeko landazabal atlantikoan espezieak habiak egiten dituen tokiak bizirik dirautela edo berreskuratzen direla ziurtatzea.

## 3. artikulua.- Iraunaldia eta berrikuspena.

- 1.- Kudeaketa-plan hau osorik eta mugarik gabe aplikatuko da indarrean jartzen denetik usapal europarra (*Streptopelia turtur*) deskatalogatu arte, zeina Arriskuan dauden Espezieen Euskal Zerrendan sartuta dagoen, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko maiatzaren 24ko Aginduaren bidez, "galtzeko arriskuan" kategorian.
- 2.- Espeziearen kontserbazio-egoeran funtsezko aldaketak gertatzen diren eta ezagutzen diren heinean, Eusko Jaurlaritzan natura-ondarea kontserbatzeko eskumena duen sailak kudeaketa-plan honen edukia berrikusi ahal izango du, eta, hala badagokio, hura betetzeko aurreikusitako helburu orokorrak, erregulazioak, jarraibideak eta neurriak birdefinitu ahal izango ditu, 9/2021 Legearen 70. artikuluan ezarritako prozedura beraren bidez.
- 3.- Edonola ere, sei urtean behin ebaluatuko dira espeziearen kontserbazio-egoera eta kudeaketa-plan honetako helburuen eta xedapenen betetze-maila, eta, hala badagokio, plana aldatu edo berrikusiko da.

#### 4. artikulua.- Definizioak.

Kudeaketa-plan honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

- a) Usapal europarraren Interes Bereziko Eremuak (IBE): kartografikoki mugatutako eremuak, zeinetan hegazti honen populazio-maila egokia lortzea funtsezkotzat jotzen den EAEko populazio habiagilea epe luzean mantentzeko.
- b) Lehentasunezko Esku-hartze Eremuak 1. maila (LEHE1): kartografikoki mugatutako eremuak, non epe laburrean lehentasunezko esku-hartzea behar den populazio habiagilearen kontserbazio-egoera hobetzeko kudeaketa-jarduerak edo -neurriak ezartzerakoan.
- c) Lehentasunezko Esku-hartze Eremuak-2. maila (LEHE2): kartografikoki mugatutako eremuak, non epe ertain edo luzeko esku-hartzea behar den populazio habiagilearen eta migrazio-igarobideko populazioaren kontserbazio-egoera hobetzeko kudeaketa-jarduerak edo -neurriak ezartzerakoan.
- d) Aldi kritikoa: espeziea edozein giza jarduerarekiko bereziki kaltebera den aldia.
- e) Espeziearen kontserbazio-egoera: espeziearengan eragiten duten eta epe luzera espeziearen populazioen banaketan eta garrantzian eragin dezaketen eragile multzoa. Kontserbazio-egoera aldekotzat joko da espeziearen populazioen dinamikari buruzko datuek adierazten dutenean espezieak haien habitatetako epe luzerako ezinbesteko elementuak direla eta izango direla; haien banaketa naturaleko eremua murrizten ez denean, ezta etorkizunean hau gertatzeko arriskurik aurreikusten ez denean ere; eta populazioak epe luzera mantentzeko hedadura nahikoa duen habitat bat dagoenean eta, seguru antzean, hori iraungo duenean.
- f) Espeziearen habitata: faktore abiotiko eta biotiko espezifikoek definitutako ingurunea, non espeziea bere ziklo biologikoaren faseren batean bizi den.

## 5. artikulua.- Aplikazio-eremua eta eskumena.

- 1.- Usapal europarra kudeatzeko plan honen aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidego osoa da.
- 2.- Usapal europarraren kudeaketa-plan honen aplikazio-eremuan ezarri dira: Interes Bereziko Eremuak (BEA), Lehentasunez Esku Hartzeko Eremuak (AIP1) eta Lehentasunez Esku Hartzeko Eremuak (AIP2). Eremu horien mugaketa da Euskadiko datu espazialen azpiegituren kartografian, Geoeuskadin, ikusten dena https://www.geo.euskadi.eus/geobisorea/?lang=eu
- 3.- Basa-flora eta –fauna kontserbazioaren eskumena duten erakundeetako sailei dagokie kudeaketa-plan honetan ezarritako erregulazioak, gidalerroak eta jarduerak aplikatzea eta betearaztea dagokien lurralde historikoan. Plan hau jarduketa-programen bidez garatu ahal izango da, eta horiek denboran eta espazioan zehaztuko dute aurreikuspenen betearazpena.
- 4.- Interes Bereziko Eremuetan eta Lehentasunezko Esku-hartze Eremuetan Natura 2000 Sareko espazioekin eta horien babes-eremu periferikoekin bat datozen erregulazioak, gidalerroak eta kudeaketa-neurriak gune horiek kontserbatzeko eta kudeatzeko tresnetan jaso beharko dira, berrikusten direnean.
- 5.- Beren lurralde-eremuan bai Interes Bereziko Eremuak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan usapal europarrarentzako definitutako Lehentasunezko Esku-hartze Eremuak barne hartzen dituzten lurralde- eta hirigintza-plangintzako tresnek espezieari lotutako habitatak zaintzen, mantentzen edo berreskuratzen direla bermatuko dute.

## 6. artikulua.- Aldi kritikoa.

- 1.- Hegazti Zuzentarauaren eta Europako Batzordearen irizpideak aplikatuz, penintsulako ipar erdialderako ezarritako ugalketa-aldia erreklamu aktibodun arrek ugalketa-eremuak okupatzen dituztenean hasten da eta ale gazteek hegan egin dezaketenean amaitzen da, abuztuaren bigarren hamarrekoan. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko usapal europarraren garai kritikoa apirilaren 21etik abuztuaren 21era bitartekoa izango da
- 2.- Basa-flora eta -fauna kontserbatzeko eskumena duten organoek aldatu ahal izango dute aldi kritiko hori, jarraipenaren emaitzen arabera.

## 7. artikulua.- Ingurumen-inpaktuen ebaluazioa.

1.- Interes Bereziko Eremuei edo ezarritako Lehentasunezko Esku-hartze Eremuei zuzenean edo zeharka eragin diezaiekeen plan, programa, proiektu edo jarduera orok eragin nabarmena badu usapala europarraren kontserbazioan edo berreskuratzeaukeretan, dela banaka, dela beste plan, programa edo proiektu batzuekin batera, espeziearen habitatean izango dituen ondorioen ebaluazioa jasan beharko dute, betiere kudeaketa planaren xedea eta helburuak kontuan hartuta.

2.- Interes Bereziko Eremuetan eta Lehentasunezko Esku-hartze Eremuetan garatzen diren jarduera eta proiektuetarako baimenen edo kontzesioen administrazio-prozedurek barne hartuko dituzte jarduera eta proiektu horiek espeziean eta haren populazio-dinamikan izan ditzaketen ondorioak eta inpaktuak aztertzeko, diagnostikatzeko eta baloratzeko beharrezkoak diren txostenak eta azterlanak. Aurreikuspen bera hartuko da kontuan planak eta programak onartzeko prozeduretan.

#### 8. artikulua.- Administrazioen arteko koordinazioa eta parte-hartzea.

Kudeaketa-plan honetan aurreikusitakoaren aplikazioan ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko, foru-aldundietan basa-flora eta -fauna kontserbatzeko eskumena duten organoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean natura-ondarearen eskumena duen sailak hurrengoa beteko dute:

- 1.- Kudeaketa-plan honen aplikazioari buruz elkar informatuko dute, eta memoria bat bidaliko da ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen. Memoria horretan, egindako jarduerak, lortutako emaitzak eta planaren helburuen betetze-maila zehaztuko dira.
- 2.- Jarduketen koordinazioa sustatuko da administrazioetako beste sail eta erakunde batzuekin, bai foru-aldundietakoekin, bai Eusko Jaurlaritzakoekin, udaletakoekin eta gainerako toki-erakundeetakoekin, bai inplikatutako sektore ekonomiko eta sozialekin ere.
- 3.- Lankidetza-akordioak eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako koordinazio- eta finantzaketa-mekanismoak ezarri ahal izango dira beste administrazio publiko batzuekin, unibertsitate eta ikerketa-zentroekin, nazioko eta nazioarteko lantaldeekin, irabazi-asmorik gabeko erakundeekin eta enpresa publiko edo pribatuekin.

## 9. artikulua.- Arau-hausteen eta zigorren araubidea.

Kudeaketa-plan honetan xedatutakoaren aurkako arau-hausteak natura-ondarea kontserbatzearen arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera zigortuko dira, zigor-bidean, bide zibilean edo beste edozein arlotan eska daitekeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

#### AZKEN XEDAPENA.- Indarrean jartzea.

Kudeaketa-plan hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

## I. ERANSKINA.- USAPAL EUROPARRA (*Streptopelia turtur*) EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN KUDEATZEKO PLANA

#### I. DIAGNOSTIKOA.

Dokumentu bateratuaren webgunerako esteka.

### II. ARAUAK.

## A .- Arau orokorrak.

Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 73.etik 75.era bitarteko artikuluetan ezarritako erregulazioez gain, honako arau orokor hauek ezartzen dira usapal europarra babesteko:

- 1.- Debekatuta dago usapal europarraren habiak dituzten zuhaitzak edo zuhaixkak moztea edo ebakitzea, baita helduek talaia gisa erabiltzen dituzten zuhaitz lehorrak ere.
- 2.- Debekatuta dago, basa-flora eta basa-faunaren kontserbazioan eskumena duen organoak berariazko baimena eman ezean, usapal europarraren aleen edo horien habia-puntuen behaketa eta erregistro grafiko edo soinuduna egiteko postu finkoak ezartzea, 250 m baino gutxiagora.
- 3.- Produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorra lortzeko jarduera-esparrua ezartzen duen irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuaren 31. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, debekatuta dago produktu herbizidak 3 m/s-tik gorako haize-abiaduran lainoztatzea kudeaketa-plan honen aplikazio-eremu osoan.

## B.- Habitata babesteko erregulazioak.

1.- Interes Bereziko Eremuetan eta Lehentasunezko Esku-hartze Eremuetan, debekatuta dago ibaiertzeko habitat naturalak aldatzea edo/eta ezabatzea dakarren edozein jarduketa, bai eta lotura funtzioa duten elementuak aldatzea edo/eta ezabatzea ere, hala nola lursailen muga-eremuetako heskai biziak edo landare-formazioak, landabideen ertzeak, drainatze natural edo artifizialak eta abar. Mota horretako jarduerak salbuespen gisa baino ez dira baimenduko, Lurralde Historiko bakoitzeko basa-flora eta –fauna kudeatzeko organo eskudunak interes publikoko arrazoiak dituela behar bezala justifikatutako txostena egin ondoren eta, edonola ere, usapal europarrari ez diola kalterik eragingo ziurtatuta. Era berean, aldaketa horiek baimenduko balira, organo

kudeatzaile horrek egokitzat jotzen dituen neurriak ezarri ahal izango ditu habitat-galera konpentsatzeko, kudeaketa-plan honetan ezarritako helburuetan oinarrituta.

- 2.- Interes Bereziko Eremuetan, debekatuta dago produktu fitosanitarioak eta/edo pestizidak erabiltzea eta aplikatzea erriberen inguruko 5 m-ko bandan, bai eta gainontzeko ibai-sarean eta lotura-funtzioa duten beste elementu batzuetan ere, hala nola heskai biziak, landare-formazioak lursailen mugetan, landa-bideen ertzetan eta abarretan, basa-flora eta basa-fauna kontserbatzeko eskumena duen organoak baimendu ezean, eta betiere usapal europarraren populazioarengan ez duela eraginik justifikatzen bada. Produktu herbiziden eta/edo zuhaixkak suntsitzeko produktuen kasuan, distantzia hori 15 m-ra zabaltzen da ur-masekiko, ibaiertzekiko, gainontzeko ibai-sarearekiko eta lehen deskribatutako funtzio konektatzailea duten beste elementu batzuekiko.
- 3.- Interes Bereziko Eremuetan eta Lehentasunezko Esku-hartze Eremuetan, nekazaritza lursailen perimetroan produktu fitosanitarioak eta/edo plagizidak aplikatzean, gutxienez 1 metroko tartea utzi beharko da muturreko lainoztagailuaren eta nekazaritzako lursailen ertzaren artean.
- 4.- Interes Bereziko Eremuetan debekatuta daude baso-tratamenduak eta edozein zuhaitz-mozketa, fruta-landaketak eta beste zuhaitz-labore batzuk barne, kudeaketa-plan honek espeziearentzat ezarritako aldi kritikoan, non eta ez den berariazko baimen justifikatua ematen, kudeaketa-plan honen helburuetan eraginik ez duela adierazten duen txostena egin ondoren, basa-flora eta -fauna kontserbatzeko eskumena duen foru-organoak emana. Era berean, jarduera horiek baimenduko balira, organo kudeatzaile horrek egokitzat jotzen dituen neurriak ezarri ahal izango ditu habitat-galera konpentsatzeko, kudeaketa-plan honetan ezarritako helburuetan oinarrituta.
- 5.- Interes Bereziko Eremuetako nekazaritza-laboreen aldaketak basa-flora eta –fauna kontserbatzeko eskumena duen organoak baimendu beharko ditu, urteroko laboreenak izan ezik, eta, horretarako, usapal europarraren elikadura-habitatari ez eragitea justifikatu beharko da. Era berean, aldaketa horiek baimenduko balira, organo kudeatzaile horrek egokitzat jotzen dituen neurriak ezarri ahal izango ditu habitat-galera konpentsatzeko, kudeaketa-plan honetan ezarritako helburuetan oinarrituta.
- 6.- Interes Bereziko Eremuetan debekatuta dago faunatik laboreak babesteko uxatzeko gailu akustikoak erabiltzea, espeziearentzat ezarritako aldi kritikoan gutxienez.
- 7.- Interes Bereziko Eremuetan eta Lehentasunezko Esku-hartze Eremuetan debekatuta dago usapal europarrak habia eraikitzeko habitata galtzea edo espeziearengan eragin zuzena izan dezaketen instalazioak edo azpiegiturak ezartzea.

#### III. KUDEAKETA-JARRAIBIDEAK.

## A.- Habiak egiteko eta elikatzeko habitatari dagokionez.

Usapal europarraren kudeaketaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko populazioen kontserbazio-egoera ona lortzea da. Horretarako, Interes Bereziko Eremuetan eta Lehentasunezko Esku-hartze Eremuetan (1. eta 2. mailak), honako hauetara bideratuko da:

- 1.- Ibaiertzen gainazala eta egitura lehengoratzea sustatzea.
- 2.- Usapal europarrak habiak egiteko eremuari lotutako espezie autoktonoekin basoberritzea eta zuhaitz bakartien landaketa puntualak sustatzea.
- 3.- Zuhaixkadi/zuhaiztien presentzia mantentzea eta sustatzea, batez ere nekazaritzako laboreekin kontaktuan dauden eremuetan.
- 4.- Mahasti-laboreak lehorreko labore eta oleaginoso bihur daitezen sustatzea, elikadura-habitata hobetzeko.
- 5.- Erroturoen emakidetan, lehorreko laboreen eta oleaginosoen hazkuntza sustatzea.
- 6.- Zerealen eta lekadunen (batez ere aledunak) laboreen txandakatzea sustatzea, baita lugorriena ere, elikadura-habitata hobetzeko.
- 7.- Bizkaiko LEHE2etan landazabal atlantikoko paisaiaren kontserbazioa sustatuko da. Bereziki saihestuko da heskai biziak kentzea, eta artadi kantauriarreko zuhaiztien kontserbazioari buruzko jarraipen berezia egingo da, haien azalera handitzeko ahaleginean, hazkunde horrek Europako intereseko beste habitat batzuen azalera murriztea eragin gabe, batez ere lehentasunezko habitatena..
- 8.- Nekazaritza-ustiategietako titularrekin akordioak egin daitezen sustatzea, uzta bildu gabeko laborantza-zerrendak ezartzeko.
- 9.- Usapal europarra espezieen, habitaten eta espazioen kontserbazioa bermatzen duten giza jarduerak ordaintzeko edo sustatzeko sistemetan sartzea: NPBren laguntzak, ingurumen-zerbitzuengatiko ordainketak, borondatezko akordioak edo bestelakoak.

- 10.- Gauzatu beharreko neurrien garapenetik nahiz espeziea eta haren habitata kontserbatzeko jarduerak ordaintzeko edo sustatzeko sistemetatik lortutako emaitzak egiaztatzeko sistema bat ezartzea.
- B.- Erakundeen arteko trukea eta erkidegoen arteko proiektuak.
- 1.- Espezieari eta haren kudeaketari buruzko informazio-truke instituzionala bultzatzea, batez ere populazio habiagilea partekatzen den lurralde mugakideekin, bai eta espezieak bere eztei-migrazioan zeharkatzen dituenekin ere.
- 2.- Usapal europarraren aleen jarraipena egiteko autonomia-erkidegoen arteko proiektuak sustatzea, teknika erabilgarri onenekin, espeziearen migrazio-ibilbideen, fenologiaren eta bioekologiaren ezagutza hobetzeko.

#### IV. KUDEAKETA-NEURRIAK.

#### A.- Habitata hobetzea.

- 1.- Ibai-ertz degradatuenetako landaredi naturalaren azalera, egitura eta osaera hobetzeko proiektuak egitea eta abian jartzea, batez ere kudeaketa-plan honetan zehaztutako Interes Bereziko Eremuetan.
- 2.- Zuhaitzik gabeko eremuetan habiak egiteko euskarrien erabilgarritasuna handitzeko proiektuak egitea eta abian jartzea, basoak lehengoratuz edo zuhaitz sakabanatuak eta/edo zuhaitz-basoak edo -zerrendak landatuz, batez ere kudeaketa-plan honetan zehaztutako Interes Bereziko Eremuetan.
- 3.- Usapal europarraren populazio habiagileentzako elikadura-habitata hobetzeko programa pilotu bat diseinatzea eta gauzatzea. Programa horrek barne hartuko ditu biodibertsitateko ertzak edo irlak sortzea, landaredi naturalaren garapena sustatuz, bai eta ereintzak garatzea ere, usapal europarrentzat eskuragarri dagoen elikadura-habitataren 2-3 ha/km² gutxienez egon daitezen, elikadura artifizialeko guneak instalatzea eta abar.
- 4.- Migrazio-bidean dagoen populazioarentzako elikadura-habitata hobetzeko programa pilotu bat diseinatzea eta gauzatzea.

## B.- <u>Ikerketa eta ezagutzaren hobekuntza</u>.

- 1.- Behar den aldizkakotasunarekin (gutxienez sei urtean behin) populazio ugaltzailearen jarraipena egitea, banaketa-eremuan laginketak eginez, eta sei urtean behin txosten bat egitea, modu formalean ezarritako parametroak betetzeko eta espeziea aipatzen den Natura 2000 guneetako Datuen Formulario Normalizatuak eguneratzeko.
- 2.- Interes Bereziko Eremuetan eta populazioaren bilakaera aztertzeko ezartzen diren sektore-pilotuetan, populazio habiagilearen jarraipena, egokitzat jotzen den maiztasunarekin: ugalketa-parametroak, Basa-fauna Berreskuratzeko Zentroetan bildutako hilkortasun naturala eta ez-naturala eta abar.
- 3.- Populazio habiagileak elikatzeko eta habia eraikitzeko habitataren erabilera hobeto ezagutzea, azterketa espezifiko bat eginez.
- 4.- Usapal europarraren populazio habiagilearen banaketa-eremuan dauden nekazaritza eta abeltzaintzako erabileren, tratamendu fitosanitarioen eta laboreen zikloaren azterketa garatzea, eta horiek espeziearen habiak egiteko eta elikatzeko habitataren kontserbazioarekin eta hobekuntzarekin duten lotura aztertzea.

## C.- Informazioa, hezkuntza eta sentsibilizazioa.

- 1.- Nekazaritzako Jardunbide Egokien Kode bat egitea, EAEko usapal europarraren kontserbazio-egoera hobetzearekin bateragarria, eta haren edukia zabaltzeko nekazarientzako kanpainak egitea.
- 2.- Honako hauei buruzko informazio- eta sentsibilizazio-tresnak diseinatzea eta ezartzea:
  - Usapal europarra kudeatzeko plan honetan jasotako erregulazioak, jarraibideak eta neurriak aplikatzea, populazio habiagilearen elikadura-habitata kontserbatze aldera, eta bereziki azpimarratzea produktu fitosanitarioen erabilerari buruzko erregulazioak.
  - Usapal europarraren elikadura-habitatean hobekuntzak ezartzeagatik nekazaritza-ustiategietan egon daitezkeen ekoizpen-murrizketak konpentsatzeko dauden finantzaketa-mekanismoak.

- 3.- Informazio-kanpainak egitea administrazioko langile tekniko eta zaindarientzat, bai eta zaindari pribatuentzat (landazainak) eta basa-fauna berreskuratzeko zentroetako eta Natura 2000 Sareko eta Parke Naturaletako jendearentzako arreta- eta zaintza-zerbitzuetako langileentzat ere, espezieak natura-ingurunean duen presentzia jakinarazteak duen garrantziari buruz.
- 4.- Tokiko sentsibilizazio-ekimenak garatzea, espeziearen ezagutza eta eskakizunak sustatzeko.

# V. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO USAPAL EUROPARRAREN KUDEAKETA-PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.

- 1.- Usapal europarra (*Streptopelia turtur*) kudeatzeko plan hau sei urtean behin ebaluatuko da, bai erregulazioen, jarraibideen eta kudeaketa-neurrien inplementazio-, egikaritze- eta eraginkortasun-mailari dagokionez, bai helburuen betetze-mailari dagokionez ere.
- 2.- Ezarritako helburuen betetze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa honako adierazle hauetan oinarrituko da:

Helburua	Adierazlea
Usapal europarraren babes eraginkorra ziurtatzea lurraldean, eta beharrezko neurriak hartzea haren populazioa kontserbazio-egoera onean egon dadin.	<ul> <li>Gauzatutako neurrien kopurua.</li> <li>Elikadura-habitatari gehitutako hektarea-kopurua (ha)</li> <li>Habiak egiteko habitatari gehitutako hektarea-kopurua (ha).</li> <li>Hegazti Zuzentarauaren 12. artikuluko ebaluazioaren emaitzak ikusita, usapal europar habiagileen joerak hobera egin du EAEn.</li> </ul>
Ugalketa-eremuetan kalitate oneko habitatak hobetzea (habiak egiteko eta elikatzeko habitatak).	<ul> <li>Gauzatutako neurrien kopurua.</li> <li>Elikadura-habitatari gehitutako hektarea- kopurua (ha)</li> <li>Habiak egiteko habitatari gehitutako hektarea-kopurua (ha).</li> </ul>
Migrazio-garaian dagoen populazioarentzako kalitate oneko habitatak hobetzea (elikadurahabitata).	<ul> <li>Gauzatutako neurrien kopurua.</li> <li>Elikadura-habitatari gehitutako hektarea- kopurua (ha)</li> </ul>
Espeziearen bioekologiaren ezagutza hobetzea, baita lurraldeko lurzoru-erabilerekin duen loturarena ere.	<ul> <li>Nekazaritza eta abeltzaintzako erabileren, tratamendu fitosanitarioen eta laboreen zikloaren azterketa garatzen da, eta horiek usapal europarraren habitataren kontserbazioarekin eta hobekuntzarekin duten lotura aztertzen da.</li> <li>Usapal europarraren habiak egiteko eta elikatzeko habitataren erabilera hobeto ezagutzeko azterketa garatzen da.</li> </ul>

Espezieko aleen hilkortasun ez-naturala prebenitzea, baita beste mehatxu-faktore batzuk ere.	Kausa ez-naturalengatik hildako usapal europarren kopurua.
Espeziearen aleen legez kanpoko hilkortasun ez-naturala eraginkortasunez jazartzea	<ul><li>Kausa ez-naturalengatik hildako usapal europarren kopurua.</li><li>Abiatutako ikerketen kopurua.</li></ul>
Usapal europarraren populazioen jarraipena eta azterketa egiteko beharrezko mekanismoak ezartzea.	<ul> <li>Jarraipena garatzen da Interes Bereziko Eremuetan eta sektore pilotuetan.</li> <li>EAEko populazio ugaltzailearen sei urteko jarraipena garatzen da, eta Hegaztien Zuzentarauko 12. artikuluko txostena betetzen da.</li> </ul>
Usapal europarraren kudeaketan inplikatuta dauden sektore guztien parte-hartzea bultzatzea.	<ul> <li>- Diseinatutako informazio- eta sentsibilizazio- tresna kopurua.</li> <li>- Teknikariei eta zaindariei zuzendutako informazio-kanpainen kopurua.</li> </ul>
Espeziea kontserbatzearen aldeko jarrera soziala sustatzea, hezkuntza- eta sentsibilizazio-jardueren bidez.	- Gizartea sentsibilizatzeko egindako kanpainen kopurua.
Usapal europarraren kontserbazioan eta kudeaketan erakundeen arteko koordinazioa ziurtatzea.	- Administrazioen arteko koordinazio-ekintzen kopurua.

## VI. FINANTZAKETA

Kudeaketa-plan hau onartu eta hurrengo 6 urteetan garatu beharreko neurrien aurrekontu zenbatetsia honako hau da:

NEURRIA	UNITATEKO KOSTUA (€)¹
Ibai-ertz degradatuenetako landaredi naturalaren azalera, egitura eta osaera hobetzeko proiektuak egitea eta abian jartzea, batez ere kudeaketa-plan honetan zehaztutako Interes Bereziko Eremuetan.	100.000
Zuhaitzik gabeko eremuetan habiak egiteko euskarrien erabilgarritasuna handitzeko proiektuak egitea eta abian jartzea, basoak lehengoratuz edo zuhaitz sakabanatuak eta/edo zuhaiztiak edo zuhaitz-zerrendak landatuz, batez ere kudeaketa-plan honetan zehaztutako Interes Bereziko Eremuetan.	50.000
Usapal europar habiagileentzako elikadura-habitata hobetzeko programa pilotu bat diseinatzea eta gauzatzea. Programa horrek barne hartuko ditu biodibertsitateko ertzak edo irlak sortzea, landaredi naturalaren garapena sustatuz, bai eta ereintzak garatzea ere, usapal europarrerako eskuragarri dagoen elikadura-habitataren 2-3 ha/km² gutxienez egon daitezen, elikadura artifizialeko guneak instalatzea eta abar.	45.000
Migrazio-bidean dagoen populaziorako elikadura-habitata hobetzeko programa pilotu bat diseinatzea eta gauzatzea.	40.000
Behar den aldizkakotasunarekin (gutxienez sei urtean behin) populazio ugaltzailearen jarraipena egitea, banaketa-eremuan laginketak eginez, eta sei urtean behin txosten bat egitea, modu formalean ezarritako parametroak betetzeko eta espeziea aipatzen den Natura 2000 guneetako Datuen Formulario Normalizatuak eguneratzeko.	30.000

<sup>&</sup>lt;sup>1</sup> Taula honetan aurkeztutako aurrekontuak gutxi gorabeherakoak dira.

NEURRIA	UNITATEKO KOSTUA (€)¹
Interes Bereziko Eremuetan eta populazioaren bilakaera aztertzeko ezartzen diren sektore-pilotuetan, populazio habiagilearen jarraipena, egokitzat jotzen den maiztasunarekin: ugalketa-parametroak, Basa-fauna Berreskuratzeko Zentroetan bildutako hilkortasun naturala eta ez-naturala eta abar.	75.000
Populazio habiagileak elikatzeko eta habia eraikitzeko habitataren erabilera hobeto ezagutzea, azterketa espezifiko bat eginez	25.000
Usapal europarraren populazio habiagilearen banaketa-eremuan dauden nekazaritza eta abeltzaintzako erabileren, tratamendu fitosanitarioen eta laboreen zikloaren azterketa garatzea, eta horiek espeziearen habiak egiteko eta elikatzeko habitataren kontserbazioarekin eta hobekuntzarekin duten lotura aztertzea.	25.000
Nekazaritzako Jardunbide Egokien Kode bat egitea, EAEko usapal europarraren kontserbazio-egoera hobetzearekin bateragarria, eta haren edukia zabaltzeko kanpainak egitea nekazarientzat.	10.000
Honako hauei buruzko informazio- eta sentsibilizazio-tresnak diseinatzea eta ezartzea:  - Usapal europarra kudeatzeko plan honetan jasotako erregulazioak, jarraibideak eta neurriak aplikatzea, populazio habiagilearen elikadurahabitata kontserbatze aldera, eta bereziki azpimarratzea produktu fitosanitarioen erabilerari buruzko erregulazioak.  - Usapal europarraren elikadura-habitatean hobekuntzak ezartzeagatik nekazaritza-ustiategietan egon daitezkeen ekoizpenmurrizketak konpentsatzeko dauden finantzaketa-mekanismoak.	10.000
Informazio-kanpainak egitea administrazioko langile tekniko eta zaindarientzat, bai eta zaindari pribatuentzat (landazainak) eta basa-fauna berreskuratzeko zentroetako eta Natura 2000 Sareko eta Parke Naturaletako jendearentzako arreta- eta zaintza-zerbitzuetako langileentzat ere, espezieak natura-ingurunean duen presentzia jakinarazteak duen garrantziari buruz.	5.000
Tokiko sentsibilizazio-ekimenak garatzea, espeziearen ezagutza eta eskakizunak sustatzeko.	5.000

## ORDEN de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, por la que se aprueba el Plan de gestión de la tórtola europea (*Streptopelia turtur*) en la Comunidad Autónoma del País Vasco

#### **EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

La Directiva 2009/147/CE, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 30 de noviembre de 2009, relativa a la conservación de aves silvestres (en adelante Directiva Aves), establece que los estados miembros deberán tomar las medidas necesarias para mantener o adaptar las poblaciones de las aves que viven en estado salvaje en el territorio europeo, así como tomar las medidas necesarias para preservar, mantener o restablecer una diversidad y una superficie suficiente de hábitats para estas especies.

La Directiva Aves, además de considerarla como especie migradora de presencia regular, incluye a la tórtola europea (*Streptopelia turtur*) en el Anexo II, relativo a las especies que podrán ser objeto de caza en el marco de la legislación nacional, debido a su nivel de población, a su distribución geográfica y a su índice de reproductividad en el conjunto del territorio de la Unión Europea, si bien los estados miembros deben velar porque la caza de estas especies no comprometa los esfuerzos de conservación realizados en su área de distribución.

